

ZUMAIA


GUKA

**GOZO DATOZ
SANTELMOAK**



Casa BASUSTA

Etkez etxeko
zerbitzua



Santiago auzoa, 18
943-86 26 11



Sartu gure **online dendara**
eta egin zure erosketak
etxetik

www.floristeriabasusta.com



40 urte baino gehiagoko
esperientzia sektorean



Landareak
Dekorazioa
eta opariak
Hileta zerbitzua
Lore sortak
Ezkontzak





AGENDA

Apirilak 10, ostirala

17:30. Kirol ikuskizuna Odieta frontoian: pala egokitua bikoteka.
19:30. Kontzertuak Torreberri aterpean: Soez eta Fronte Berria taldeak.
21:00. DJ gaua, txosna eremuan.
22:00. Bertso jaialdia Zumaian, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Maddi Ane Txopereña, Aitor Etxebarriazarraga, Xabat Illarregi eta Onintza Enbeita bertsolariekin. Gai jarzailea Jon Maia izango da.

Apirilak 11, larunbata

11:00. Udal Txistulari Bandaren kalejira.
12:00. Jaien hasierako txupinazoa, San Telmo ermitaren inguruan. Jarraian, musika eskolako trikitilariak lagunduta, herrira jaitsiera. Ondoren, hamaiketako Itxas Gain elkarrearen eskutik. Giroa alaitzen ariko dira trikitilariak eta bertso eskolako ikasleak.
12:30. Zumai txarangaren eta trikitilarien kalejira.
12:45. Musika eskolako haurren eskutik, euskal dantzen emanaldia, Ondartxon.
13:30. Zumaiako arku dantza eta zahagi dantza, Kofradian.
14:30. Gazte bazkaria, herri eskolako frontoian. Bazkalondan, Elektrokela elektrotxarangarekin kalejira.
17:00. Artzainen herri kirolak haurrentzat, Odietan.
18:00. Jainekin txarangaren kalejira.
21:30. DJ saioa Saizar eta Krokerekin, Torreberri gaztetxean.
22:30. Gazte Eguna ospatuko dute txosna eremuan, eta

Zeker, Niña Coyote eta Chico Tornado eta Skaregekasko taldeek kontzertuak eskainiko dituzte.
22:30. Bide Batez taldeak dantzaldia eskainiko du, Kofradian.

Apirilak 12, igandea

08:00. Ustekabe txarangarekin kalejira.
11:00-13:30. Santelmoetako 23. Scalextric Txapelketa, Oxford aretoan.
11:30. Hamaiketako herriko arrantzale zaharrentzat.
12:00. Trikitixas bikotearen kalejira.
12:00. Haurren danborrada.
12:30. Ustekabe txarangaren kalejira.
16:30-19:00. Santelmoetako 23. Scalextric Txapelketa, Oxford aretoan.
17:00. Buruhandien eta erraldioen kalejira txistulariekin, udaletxetik hasita.
17:15. Profesionalen esku pilota partidak, Aitzurin.
18:30. Ustekabe txarangaren kalejira.
18:30. Bakarrizketak, txosna eremuan.
19:00. Trikitixas bikotearekin kalejira.
22:00. Jo Ta Txo disko jartzailea, txosnagunean.
22:15. Helduen danborrada.
22:30. Joselu Anaiak taldearen dantzaldia, Kofradiako plazan. Gauerdian, Jose Luis Saizabal *Etxeberri* arrantzale ohiak bandera igoko du Kofradian. Danborrada amaitutakoan, Joselu Anaiak taldeak jarraituko du Kofradian.

Apirilak 13, astelehena

San Telmo eguna

10:15. Prozesioa, San Telmo ermitara.
10:30. Meza nagusia. Itsasoaren aurrean otoitza egingo



lazko banderaren igoerako irudia.

dute, eta, gero, parrokiara itzuliko dira. Bertan, San Telmoren erlikia gurtuko dute. Ondoren, hamaiketako izango da.
11:30-14:00. Umeentzat puzgarriak, Odietan.
12:30. Incansables txaranga herriko kaleetan zehar.
16:30-19:00. Umeentzat puzgarriak, Odietan.
18:00. Plaza dantzak, Kofradian.
18:00. Profesionalen zesta-punta finalak, Aitzuri pilotalekuan.
18:30. Incansables txarangarekin kalejira.
19:30-22:30. Lotxo taldea, Kofradian.

Apirilak 17, ostirala

17:00. Igel toka eta pote txapelketak, Eusebio Gurrutxaga plazan.
19:30. III. Irrintzi Lehiaketa, Amaia plazan.
19:30. Bertso festa, Oxford aretoan.
22:00. Bertsio Gaua, txosnagunean.

Apirilak 18, larunbata

10:00. 26. Olagarro Zopa Lehiaketa, Eusebio Gurrutxaga plazan. Ekitaldia alaitzen arituko dira Elustondo trikitilariak.
11:00-14:00. Jolasak eta tailerrak, Eusebio Gurrutxaga plazan.
12:30. Iraunkorrak txarangaren kalejira.
14:00. Elkartasun argazkia, Arranplan.
14:15. Herri bazkaria, txosnagunean.
14:30. Ikasleen eta gazteen bazkaria Torreberri gaztetxean.
17:30. Karropoteoa.
17:30. Igomagoren *Etorri eta ikusi* ikuskizuna, Kofradian.
18:00. Herri kirol erakustaldia, Odieta pilotalekuan.
18:30. Haurrentzat erromeria, Joxe Mendizabalekin.
18:30. Iraunkorrak txarangaren kalejira.
22:00-01:00. Davila DJa, Kofradian.
23:00. Aimarz eta Hazas taldeen kontzertuak, Torreberri.

22:30. Bele, Labar eta Debrass Band taldeen kontzertuak, txosnagunean.

Apirilak 19, igandea

08:00. Zumai txarangaren kalejira.
10:00. Musikari gazteen goiz soina.
12:00. Zaldi lasterketak, Itzurrun hondartzan.
12:00. Joselontxos txarangaren kalejira.
12:30. Sardina erreak, Saregile plazan.
17:00. Torreberri hasita, *Zapotxin eta Kita del Pare txaranga* haur ikuskizun ibiltaria.
17:30. Trainerillan estropadak: gizonen 41. San Telmo saria eta emakumeen 12. San Telmo saria.
18:00. Joselontxos txarangaren kalejira.
19:00. Samba Badago taldearen kontzertua, Kofradian.
22:00. Olgetan taldearekin erromeria, Kofradian.
00:00. Bandera jaitsieraren ekitaldia, Kofradian.

Clinica Dental · Hartz Klinika



ANE IBARRETXE
HORTZ KLINIKA



GORA SANTELMOAK!

ESTETIKA
 ORTODONTZIA
 PERIODONTZIA
 IMPLANTOLOGIA
 ODONTOPIEDIATRIA
 PADI
 BERRERAIKI
 BERRESKURATU
 MANTENDU

ferreteria Galdona S.A.



burdindegia



Gora santelmoak!
Lanerako arropak, epiak...

JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA • Pab. A6.1, 2-5 mod. • Tel.: 943-86 11 17



4 Santelmoak

Asteartea, 2026ko apirilaren 7a **GUKA**

Otezuri kafetegia

ZUMAIA

Eguneko ogia eta gosaria
AUPA SANTELMO!

otezuri.kafetegia@gmail.com



Bikos & café

BALIOAK DASTATZEN
DEGUSTANDO VALORES

GORA SANTELMOAK! ONDO PASA FESTAK!

ONDARTXO PLAZA, 3
Tel. 943-38 14 14 • www.bikosycafe.com • bikosycafe@gmail.com



Sartaiia

Janaridenda-okindegia
Gora santelmoak!!

Txomin Agirre kaia z/g • 943-86 01 71

Xiru

Ondartxo plaza 3
943-86 17 05
747 48 35 52

Argazki eta opari denda
Gora santelmoak!



SAN TELMO MARTXA

Zumaiar danok
bitarteko bat.
Degu goietan
Leial eta benetan
San Telmo maite
Erruki zaitez
Gorde gaitzazu
Erbeste honetan

Arrantzaleok
Zugan daukagu.
Urte osoa
Luzazu besoa
Eiguzu lagun
Nahiz gau nahiz egun
Arrisku danak
Menpera ditzagun

LA, LA, LA, LA, LA, LA, LA,
LA, POM PORROM...

LA, LA, LA, LA, LA, LA, LA,
LA, POM PORROM...





Iritzia

Juan Luis Romatet

Festetan lana? Arazorik gabe

Duela urtebete inguru, iazko San Telmo jaiak amaitu eta hurrengo egunean, Euskadi Irratiko norbait nuen telefonoz deika. Aurretik ere deitu izan naute guk elkarrizketatutako norbaiten kontak-tua eskatzeko, eta pentsatu nuen huraxe izango zela deia-ren asmoa. Bada, oker nen-goen: protagonista ni nintzela esan zidaten. Asteburu hartan zumaiguka.eus webgunean argitaratutako albiste guztiak, bat izan ezik, nik sinatutakoak zirela-eta elkarrizketatu nahi ninduten. Saiatu nintzen txo-txolokeria hura haien burutik kentzen; eduki hura guztia nik sinatu banuen guardian egon nintzelako zela esan nien. Ez nuen konbentzitzerik lortu, eta han elkarrizketatu zuten nekeak eta ajeak kaltetutako gizagaixo hura. Zuzenean izan zen, gainera, eta galdera bakarra dut gogoan: "Festetan lana izanda, zure lagunak ta-bernara joaten direnean, zer pentsatzen duzu zuk?". Azkar asko erantzun nien: "Pentsa-tu? Ezer ere ez, beraiekin joa-ten naiz hurrengo garagardoa hartzera".

Izan ere, ofizio hau lanbide

dudanetik, urruneko 1999ko abuztu hartatik, alegia, esango nuke santelmo guztietan egin dudala lan, pandemia garai-ko urtean izan ezik. Lankide batzuek nahiago izaten dute txanda aldatzea festa giroaz gozatu ahal izateko. Ez da nire kasua; esango nuke ondo uz-tartzen ditudala lana eta jaia. Noski, badaude gorputza eta, gehienbat, burua martxan jartzeko espidifen dosi bikoi-tza beharrezkoa den egunak; edukiak idazterakoan teklatur bere kasa mugitzen den une bat edo beste ere bai; baina eguzkitako betaurrekoak jarri, sabela baretzeko lehen Coca-cola irentsi, eta han joan izan naiz ekitaldiren baten berri ematera.

Inoiz oso gautxoria ez iza-teak asko lagundu dit horre-

Inoiz oso gautxoria ez izateak asko lagundu dit horretan; gehiago disfrutatzen dut eguneko jai giroarekin gauekoarekin baino

tan; gehiago disfrutatzen dut eguneko jai giroarekin gaue-koarekin baino. Hala heltzen naiz, esaterako, santuaren prozesiora, urtero errepika-tzen den errutina betetzera: udal agintariei kasu egin, Ex-calibur ezpata mitikoaren ta-mainako iltzea duten bandako kideekin broma bat edo beste partekatu, parrokiaren au-rrean dozenaka argazki atera, beste hainbeste San Telmo ka-lean bertan, eta, kalean behera eginda, tabernaren batean sartzen naiz pintxo bat jatera. Prozesioarekin bezala, berdin danborradekin, zaldi laster-kekin edo txosna guneko kontzertuekin. Onartzen dut banderaren jaitsierara heltzea gero eta gehiago kostatzen zai-dala, gorputza gorpu bihurtuta izaten dudalako ordurako.

Etxe barruko lan banaketa eginda, aurten ez dut lanik egin beharrik izango santelmoetan. Ez, ez dut danbo-rradara joan beharrik izango (gaitz erdi!), ezta zaldi laster-keketara ere; behingoagatik itsaso urdinean kamuflatzeko parada izango dut. Hantxe ikusiko gara.

Topo egiten ez badugu, **ondo pasatu santelmoak!**

Terraza bikaina eta jantoki zabala
GORA SANTELMOAK!
📞 679 10 31 67 📍 Juan de Zigarán, 1 Zumaia
@aitamarijatetxea@gmail.com

ALBERDI
BURDINDEGIA

zuk ideiak, guk tresnak

📍 Victoriano Arrate Etorbidea, Zumaia

ASA ASESORIA ARIN
AHOLKULARITZA ETA KUDEAKETA

📍 ZESTOA
Gesalaga kalea, 22 behea
T: 943-89 70 99
M: 657 79 90 52

📍 ZUMAIA
Pantxita etxezarreta, 15 behea
T: 943-11 71 55
M: 657 79 90 52

asesoriarin@asesoriarin.com

GORA SANTELMOAK!

30
URTEKO ESPERIENTZIA

Pintxo bereziak eta terraza bikaina
GORA SANTELMOAK!
Ondartxo plaza 4, behea B1 | 623 27 21 91

Ortega y Gasset kalea 4
Zumaia
943-57 46 51
amamataberna@gmail.com

Ketuak eta iberikoak
Gora santelmoak!

**6****Santelmoak**Asteartea, 2026ko apirilaren 7a **GUKA**

Haize Galarraga eta Iñaki Egaña iazko Olagarro Zopa Lehiaketan.

Olagarro zopa onena egiteko sekretua aurkitu dute

Zumaiak eta olagarroak lotura estua dute; bat bestea gabe ez litzateke gauza bera izango. Are gehiago, bada Zumaian bakarrik egiten den errezeta bat: olagarro zopa. Ohiturari eusteko asmoz, San Telmo jaietan Olagarro Zoparen Lehiaketa egiten dute, eta azken bi urteetan Aita Mari elkarteak irabazi du txapelketa; zehazki, Haize Galarragak eta Iñaki Egañak osatzen duten bikoteak.

zumargi
elektrizitatea

GORA
SANTELMOAKI

- Etxebizitzetako eta lokaletako eraberritzeak/konponketak.
- Telebistako antena kolektiboak eta banakakoak.
- Eguzki panelak.
- Ibilgailu elektrikorako karga-puntuak

Etxezarreta 17 behea · ZUMAIA · Tel.: 943 05 47 93



IBERDROLA
Zure energia izan nahi dugu.
Bezeroarentzako arreta-puntua



Zumaiako San Telmo festetan herriak itsasoa-ekin duen lotura estua ospatzen dute, eta jaietarako prestatu ohi duten egitarau oparoaren barruan leku berezia hartzen du Olagarro Zoparen Lehiaketak. Arrantzarekin eta kostaldeko bizimoduarekin lotutako plater xume eta zapoetsua da olagarro zopa, belaunaldiz belaunaldi transmititu den jakintzari esker gauzatzen dena, eta, beraz, sukaldaritza herrikoia baliatzen duena. Lehiaketa ez da gastronomia ekitaldi bat soilik; auzolanaren, sormenaren eta giro onaren erakusgarri ere bada.

Parte hartzaileek beren erretzetarik onenak garatzen dituzte lehiaketa irabazteko ahalgina egiteko, eta urtez urte, gero eta zailagoa bilakatu da epaimahaiaren lana. Dena den, Aita Mari elkartearen izenean parte hartzen duten Haize Galarragak eta Iñaki Egañak badiardi plater horren sekretua aurkitu dutela; izan ere, azken bi edizioetako irabazleak izan dira. "Beti hartu ditugu ezustean garaipenak, sukaldaritza txapelketetan normalean denek izaten dute-eta maila oso ona. Ez dakit zer faktore hartzen dituzten kontuan garailea erabakitzerakoan, baina pozgarria da bi urtez jarraian irabaztea; berezia da", azaldu du Galarragak.

Galarragak eta Egañak halakorik uste ez duten arren,

garbi dago Aita Mari elkarteko kideen errezetak baduela zerbait desberdina, edota berezia. "Zaila da esatea. Txapelketa aurrera doan heinean, gainontzeko taldeen platerak dastatzea gustatzen zait. Eta zerbait esatearren, amaieran ematen diogun ukituan dagoela gakoa esango nuke", dio Galarragak aho txikian. Izan ere, osagaiak denentzat berdinak dira: antolakuntzak jartzen ditu olagarroa eta hura beratzeko erabiltzen den ura, talde guztientzat kantitate bera. Zopakoa, tipula edo tomatea bezalako ohiko osagaiak ere antolatzaileek ematen dizkiete partaideei, baina nahitaez erabili beharrezkoak olagarroa eta ura soilik dira.

Zailtasunak

Antzina, arrantzaleek olagarroa harrapatu ondoren, lehortu egiten zuten, kontserbatzeko modu eraginkorrena horixe zelako. Horretarako, olagarroak garbitu, zabaldu eta eguzkitan zein haizetan jartzen zituzten hainbat egunez, hariak eta guztiz lehortu arte. Prozesu horrek zapore kontzentratua eta testura berezia ematen zizkion olagarroari.

Lehortutako olagarro hori erabilia prestatzen zuten olagarro zopa, garai batean oso ohikoa zen platera. Zopa egiteko, lehenik eta behin olagarro lehorrak beratzen jartzen zuten biguntzeko. Ondoren, tipularekin, baratxuriarekin, piperrarekin eta batzuetan patata edo ogi pixka batekin egosten zuten, salda zapoetsua eta

sendoa lortuz. Plater xumea izan arren, itsasoaren zapore handia zuen zopa horrek, eta arrantzaleen eguneroko dietaren parte garrantzitsua bilakatu zen.

Olagarro zopak Zumaiarekin duen lotura bereziki estua da. Herri horretan olagarroa lehertzeko ohitura oso zabaldua egon zen, inguruneak

Galarragak uste du amaieran ematen dioten "ukituan" dagoela gakoa

Apirilaren 18an hirugarren txapelaren bila joango da bikotea

olagarro ugari ematen zuelako. Horregatik, olagarro lehorrak eta harekin egiten diren errezetak, hala nola olagarro zopa, herriko ondare gastronomikoaren parte bihurtu dira.

Hala ere, gaur egun zailtasunak daude olagarro lehorrak lortzeko. Batetik, arrantza araudiak zorrotzagoak dira, eta olagarroaren harrapaketa mugatuagoa da espeziea babesteko. Bestetik, lehertzeko prozesu tradizionalaren ohitura ia galdu egin da, denbora eta baldintza egokiak (eguraldia, espazioa, jakintza) behar dituelako. Gainera, gaur egun zaila da halako artisauak aurkitzea, belaunaldi berriek ez

dutelako ohitura hori mantendu. Horren ondorioz, olagarro lehorrak gero eta produktu arraragoa bihurtzen ari da, eta haren erabilera gastronomikoa ere gutxituz doa.

Hala ere, Zumaiako Olagarro Zopa Lehiaketari eusteko baldintzak badaudela uste du Galarragak, belaunaldi berriak animatuko direla. "Izan ere, lehiaketan parte hartzen hastea kostatzen zaien arren, behin probatzen dutenean, gustatu egiten zaie. Gainera, taberna batzuek eta elkarte gastronomikoei lehiaketan parte hartzen duten bitartean, mantenduko dela iruditzen zait. Egia da iaz kostatu egin zitzaizela txapelketa egiteko beharrezko olagarro lehorrak kopurua lortzea, baina aurten eskuratu dutela diote, eta kalitate onekoa dela, gainera".

Olagarro zopa egiteko abila izan behar dela argi dago, baina, horrez gain, ausarta ere izan behar da hura dastatzeko, usain bizi-bizia baitu. "Gaztarekin alderatzen du nik olagarro zopa: usain txarra dutela esaten dugu, baina gero kutixiak dira. Usain bizia izan arren, zaporea ez da horrenbestekoa; guk egiten dugun olagarro zopak behintzat ez du zapore fuertea. Janari on guztiekin gertatzen den bezala, katigatzeko ahalmena baduela esango nuke", adierazi du Galarragak.

Hirugarrenaren bila

Aurten, apirilaren 18an jokatuko dute 26. Olagarro Zopa

Lehiaketa, Eusebio Gurrutxaga plazan. Bertan izango dira Galarraga eta Egaña, eta hirugarren txapelaren bila joango dira. "Saiatuko gara, eta ahal dugun guztia egingo dugu horretarako. Baina maila handia dago, eta konpetentzia izango dugu". Ilusioz eta gogoz dago bikotea, baina presiorik gabe joango dira lehiatzen. Hori bai, aurreko urteetan egin bezala, lehiaketaren egunaren bezperan "txintxo" ibiliko direla dio Galarragak: "Serio hartzen dugu kontua, eta ez dugu parrandarik egiten aurreko egunean. Bertsio Gaua izaten da ostiral gauean, eta bertatik igaroko gara abesti eta bertsio batzuk entzuteko, baina txintxo-txintxo joango gara ohera, oso goizo jaiki behar garrelako hurrengo egunean".

Aita Mari elkartetik beharrezko tresneria hartuta joaten dira Eusebio Gurrutxaga plazara. 10:00etan, lehiaketa hastean, epaimahaiak seinalea egiten die kazolan, eta orduan hasten da sukaldarien benetako lana.

Lehiaketaren bueltan giro bikaina sortzen dela nabarmendu du Galarragak: "Parte hartzaile guztien arteko harremana oso ona izaten da. Gainera, hamaiketako ematen digute antolatzaileek, eta denok elkarri adarra jotzen ari-tzen gara. Oso ondo pasatzen dugu". Lehiaketaren alderik txarrena epaimahaiaren iritzia entzutea da, baina Galarragak eta Egañak azken bi urteetako epai bera jasotzea espero dute aurten ere; horren bila joango dira behintzat.

Decotena
Zure ametsak gure helburu

KOLTXOIAK FABRIKATZEN DITUGU
Ohea janzteko behar duzun guztia eskaintzen du Decotenak

**NEURRIRA EGINDAKO
KOLTXOIAK
BURKOAK
IZARAK
EDREDOIAK**

**Gora
San Telmo
jaiak!**



ZUMAI

AZKOITIA

BERGARA

ELGOIBAR



8

Santelmoak

Asteartea, 2026ko apirilaren 7a **GUKA**



"Berezia izango da bandera igotzeko unea; gainera, bi alabak danborra jotzen irtengo dira"

Jose Luis Saizabal 'Etxeberri' San Telmo jaietan bandera igoko duen herritarra

Albisteak sorpresan harrapatu ez duen arren, Jose Luis Saizabal 'Etxeberri' (Getaria, 1952) "pozik" agertu da San Telmo jaietan bandera igoko duelako. Santelmoak "oso gustuko" festak ditu, eta, beraz, ospatzeko nahikoa arrazoi badu aurten.

aholkulariak
UNANUE
ZERGAK | LABORALA | AUDITORETZA | ENPRESA ETA AUTONOMOAK

GORA SANTELMOAK!



Erribera kalea 6, ZUMAIA | Tel.: 943-86 09 60 | unanue@unanue.eus | www.unanue.eus



Aurtengo San Telmo jaietako bandera igoko duzu. Nola jaso zenuen albistea?

Arbustain motor elkarte arduratzen da omenaldiaz, eta elkarte lehendakariak eman zidan albistea. Kontua da ni elkarte horretako kide naizela, eta lehenbizi hiruzpalau zumaierrei egin zitzaizela bandera igotzeko proposamena, baina ezezkoa eman zuten denek. Pena da, ohitura galdu egingo baita horrela jarraituz gero. Orduan, nigana jo zuen lehendakariak, zaharrena naizela argudiatuz.

Beraz, ez da ezustekoa izan. Hala ere, ilusioa egingo dizu, ezta?

Bai, noski. Azken asteotan begietan ebakuntzak egin dizkidate, begi lausoengatik, eta medikuari egin nion lehenbiziko galdera izan zen ea santelmoetarako prest izango ote nintzan. Lasai egoteko esan zidan, bandera igotzeko eguna iristerako ikusmena zoragarri izango nuela eta.

Santelmoak ospatzeko ohiturarik ba al duzu?

Bai, asko gustatzen zaizkit festa horiek, eta aurten ere ospatuko ditut. Ez dut uste ezer aldatuko denik omendua izategatik; ez nigan, behintzat. Berezia izango da bandera igotzeko unea; gainera, bi alabak danborra jotzen irtengo dira, eta une hori apartekoa izango dela iruditzen zait.

Baina santelmoetan parranda ederrak botatakoa naiz! Orain ezberdin bizi dituzte festak.

Zer gustatzen zaizu gehien jaietatik?

Egoten den giroa da ederrena, eta San Telmo eguna, astelehena, asko gustatzen zait. Ostiralean eta larunbatean jende asko ibiltzen da, baina aselehenean bertakoak bakarrik egon ohi gara, eta horrek berezia egiten du eguna. Egundotorea izaten da. Eta errepeticioak ere

gustatzen zaizkit. Jesus! Non egiten da hori? Hemen, Zumaiian, bakarrik.

San Telmo arrantzaleen patroia da, eta zu urte luzez aritutakoa zara arrantzaz, ezta? Noiz hasi zinen?

14 urte nituela hasi nintzen arrantzaz. Aita arrantzalea



"Parranda ederrak botatakoa naiz! Orain ezberdin bizi dituzte festak"

"Egoten den giroa da ederrena, eta San Telmo eguna asko gustatzen zait"

"Itsasontzi txiki bat dut, eta txipiroti bila joaten naiz noizbehinka"

zen, beste hiru anaiak ere bai, eta, beraz, beste aukerarik ez nuen. Aitak itsasontziko patroiarekin hitz egin zuen, eta han joan nintzen ikastera. Ama, berriz, negarrez gelditu zen, oraindik txikiegia nintzela esanez. Baina horrela ziren gauzak garai hartan. Hala ere, ez nuen denbora gehiegi egin itsasoan; zazpi urte bakarrik.

Arrantzaleena lan gogorra dela esaten dute. Zer egiten zitzazun zuri zailena edo gogorrena?

Bizimodu gogorra da arrantzalearena, oso gogorra; garai hartan batik bat. Izan ere, gaur egungo itsasontziek ordenagailuak eta makina asko dituzte lana errazteko, baina duela 60 urte dena eskuz egin behar izaten genuen. Txarrena hegaluze bila joatea izaten zen; itsasoan hamalau edo hamabost



egun egiten genituen etxetik kanpo, eta nik hori gaizki eramanen nuen. Neguak ere gogorak ziren: hotza, haizea... Hala, dagoeneko ezkondata nengoela, emazteari ezer esan gabe, itsasotik alde egitea erabaki nuen; Zumaiian bizi nintzen ordurako, osabak utzitako etxe batean, eta enpresa batera joan nintzen lanposturik libreba al zuten jakiteko. Astebetera hasi nintzen bertan lanean.

Eta ez al duzu itsasoaren faltarik sumatu?

Itsasoa oso gustuko dut, eta nahiz eta arrantzalea ez izan, itsasontzi txiki bat dut eta txipiroti bila joaten naiz noizbehinka. Hori ez dut alde batera uzteko asmorik. Baina kapritxoz eta gustura egiten dudan zerbait da.

Gaur egungo gazteen artean arrantza ez da aukera bat. Nola ikusten duzu egoera?

Asko ari da aldatzen, eta gutxitzen ari dira arrantzaleak. Getariako portuan 30 itsasontzi ezagutu nituen nik; gaur egun, aldiz, 10 edo 11 daude. Horieta-ko batzuk salgai daude, gainera, baina ea nork hartzen duen itsasontzi bat egungo egoeran. Zaila da. Egia da hegaluzeak eta antxoak dirua ematen dutela, baina lan gogorra da, eta normala da gazteek arrantzale lana egiti nahi ez izatea.



Muniosoro
erretegia

Eguneko menua eta asteburukoa

Gora santelmoak!

Oikia 54, Zumaiia · 943-14 78 91





Bizi Bitxi psikologia eta sexologia osasun zentroko Veronica Huerto (ezkerrean) eta Arantxa Iglesias (eskuinean). UTZITAKOAK

"Jarrera matxisten prebentzioa landuko dugu batik bat"

Arantxa Iglesias Bizi Bitxi osasun zentroko kidea

Sexualitate eta harreman osasuntsuak bultzatzeko eta erasoen aurka egiteko Gune Morea jarriko du udalak jaietan. Apirilaren 10ean, 11n, 12an, 17an eta 18an eskainiko du zerbitzua Bizi Bitxi psikologia eta sexologia osasun zentroak.



GORA SAN TELMO!!

943 143 097 / 669 748 083
Erribera 6 Zumaia

Zatoz KM 0 Zuntzera
Zatoz Zumaiako Operatzailera

maras.eus





Beste urte batez, Gune Morea jarriko dute San Telmo jaietan, Zumaiako Udalak eta Emakumeon Etxeak elkarlanean prestatuta. Saregile plazan jarriko duten gunea eraso matxistak salatzeke, arreta emateko eta protokolo feminista zabaltzeko nahiz gaiaren inguruko ekarpenak jasotzeko izango da.

Bizi Bitxi psikologia eta sexologia osasun zentroko kideek emango dute zerbitzua postu horretan, santelmoetako ostiralean, larunbatean eta igandean (apirilak 10, 11 eta 12), baita repetizioetako ostiralean eta larunbatean ere (apirilak 17 eta 18). Zehazki, 22:00etatik 01:00etara egongo da zabalik postua.

Eraso edo jarrera sexistak, LGTBI+fobikoak zein arrazistak jaso dituztenak zein festa giroaren inguruko iritzi eta ekarpenak egin nahi dituztenak Gune Morera bertaratzera gonbidatu dituzte udalak eta Emakumeon Etxeak. Gainera, Gune Morean pegatinak, eskuorriak, txapak eta beste-lakoak eskuratu ahal izango dituzte.

Zerbitzua eskainiko duen Bizi Bitxi psikologia eta sexo-

logia osasun zentroko Arantxa Iglesiasekin hitz egin du Gukak.

Zumaiako San Telmo festetan prebentzio gunea izango du Bizi Bitxi. Zer zerbitzu eskainiko ditu zehazki?

Sexu Bizi programa eskainiko dugu, jarrera matxisten prebentzioa lantzeko batik bat. Gune Morean informazioa eskainiko dugu, eta sexu indarkeria, indarkeria matxista edota genero indarkeria kasuen inguruko baliabideen berri emango dugu, baita aholkuak ere. Gainera, erasoren bat izanez gero, aurrez aurreko arreta ere eskainiko dugu, noski. Kolektibo guztiei zuzendutako gunea da; LBTBIQ+ pertsonen adibidez, beren txokoa dute, eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu kolektibo horren jakintza edota iritziak ezagutarazteko. Azken finean, harreman osasuntsuak sustatzea nahi dugu; edozein motatakoa dela ere harremana, herritarrek informazioa izan dezatela.

Zein da helburu nagusia?

Prebentzioaren inguruko informazioa ematea eta biktima izan direnei arreta eskaintzea; horiek dira helburu nagusiak. Ikusgarritasuna ematea ere nahi dugu, herritarrek jakin dezatela gurea gunea seguru bat

dela. Emakume askok esaten dute lasaitasuna sentitzen dutela festa eremuan horrelako gunea bat dagoela jakitean. Bestalde, herriak berdintasuna-



«Ez dugu inor behartzen salaketa jartzera, eta ez dugu pausorik ematen biktimaren adostasunik gabe»

«Azken urtebetean aldaketa sumatu dugu mutil gazteengan»

rekiko duen konpromisoaren erakuslea ere bada gunea.

Zer pauso ematen dituzue indarkeria kasu baten aurrean?

Kasu bakoitzaren arabera, erantzun desberdina ematen dugu. Batik bat, biktimak eman nahi dituen pausoen arabera jokatzeko dugu: nola dagoen jakin nahi izaten dugu, pausorik eman nahi al duen galdetzen diogu, konfiantzazko pertsona bat aurkitu dezan laguntzen diogu, eta beti, biktimak esaten duenaren eta

dituen beharren arabera jokatzeko dugu. Hau da, ez dugu inor behartzen salaketa jartzera, eta ez dugu pausorik ematen biktimaren adostasunik gabe. Biktima ez da berbiktimizatu behar; horretarako entzun egin behar zaio, eta behar duen zerbitzua eskaini, konfiantzazko gunea bat izan dezan.

Zer nabari duzue gaur egungo gazteen artean, eta batik bat, festaren testuinguruan?

Azken urtebetean aldaketa sumatu dugu mutil gazteengan. Indarkeria matxista ukatzen dutenen kopurua ugartzen ari den zurrumurrua hedatu den arren, Gune Morean alderantzizkoa nabaritu dugu: askoz ere mutil gehiago etortzen dira gugana. Beti gerturatu izan zaizkigu neskak eta LBTBIQ+ kolektibokoak, baina azken urtean bi profil desberdinetako mutilak etorri dira gugana batik bat; batzuk egoerak partekatzen dira, eta beste batzuk gure lana zalantzan jartzera; azken horiek oso mutil gazteak izaten dira. Lehenbiziko profilak harritu egiten gaitu, historikoki emakume helduek egin izan dutelako hori; bigarren taldekoek, berriz, harritu egiten gaituzte, baina eskertu egiten dugu. Izan ere, guri ira-

kasteko asmoz etortzen badira ere, hitz egiteko prestutasuna izaten dute, eta elkarrizketa beti izaten da positiboa.

Bestalde, etorkinengan ere aldaketa nabari dugu. Etnia eta erlijio jakin batzuetako pertsonak ez ziren Gune Morera etortzen orain arte, eta orain, zorionez, oztopo edo muga hori puskatzen hasi da. Pozgarria iruditzen zait hori; izan ere, horrek esan nahi du herriaren parte sentitzen direla. Hori guztia ikusita, azken urtebeteko irakurketa oso positiboa da.

Informazio bila joaten direnez hitz egin duzu, baina erasoan inguruko jarrerari dagokienez, zein da egoera?

Egiari zor, ez dira eraso asko izaten. Gugana jotzen duten asko tabernetan bizi izandako jarreraren harira hurbiltzen dira: bultzakadak jaso dituztela, zelatan egon zaizkiela... aipatzen dute. Adi-adi dauden neskak izaten dira, bizi izan dituzten egoerak partekatzen edota informazioa jasotzen direnak. LBTBIQ+ kolektibokoak bai gerturatzen direla, haien kasuan eraso gehiago izaten direlako; irainak batik bat. Gugana etortzen direnek konplizitate bilatzen dute, konfiantzazko eremu bat delako Gune Morea.

Gora San Telmo!

txopa
GASTROLEKUA

Erreserbak: 943 574 098 | 644 971 228



AITZURI
TABERNA
JATETXEA

GORA SANTELMOAK!

Eguneko menua eta terraza ederra

Victoriano Arrate z/g

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est. 2016

Pintxo bereziak eta terraza bikaina

GORA SANTELMOAK!

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84

ARDANTZABIDE SUPERMERKATUA

EROSKI city

Ardantzabide 9
Zumaia

MANDALA
Papertegia & diseinu grafikoa

www.mandalapapertegia.com

ASESORIA ZUMAI, S.L
Errenta aitorpena, aholkularitza...

Plaza Amaia 15 bajo
20750 Zumaia
Telf.: 943-86 26 24
Fax: 943-86 27 94
e-mail: info@zumai.com

GORA SANTELMOAK!



2022. urteko Bertsio Gaueko une bat.

Bertsio Gaua: Zumaiako soinu bandaren berpiztea

Hamaika musika talde eta abeslari ezagun erein dira Zumaian, baina horretaz haratago, musikari lotutako zaletasuna handia da herrian. Festetan askotariko doinuak izango dira entzungai nonahi, baina bada azken urteetan hutsik egiten ez duen hitzordu bat: Bertsio Gaua.

Zumaia itsasoari begira bizi den herria da, baina olatuek ez ezik, musika doinuek ere markatzen dute haren erritmoa. Kale estuetan barrena eta plazetan, askotan entzun izan dira era askotako doinuak: kontzertu txikiek, festetako emanaldiek

edo lagunarteko musika saioek giro berezia sortzen dute urte osoan zehar. Herriak musikari lotutako tradizio sendoa du, belaunaldiz belaunaldi transmititu dena, eta gaur egun ere nabaria da sortzaileen eta zaileen presentzia Zumaian.

Festetan, dena den, musikak protagonismo berezia hartzen du. Jaiek irauten duten egu-

netan, herritarrak kalera ateratzen dira, zuzeneko emanaldiez gozatzera, musikarekiko duten zaletasunaren erakusle. Hori ez da entzule pasiboen kontua soilik: askok modu aktiboan parte hartzen dute taldeetan, antolakuntzan edo kultur ekintzetan. Hori gauza baten adierazle argia da: musika ez da osagarri hutsa, baizik



eta Zumaiako nortasunaren funtsezko elementua.

Musikarekiko zaletasun horren erakusle bihurtu da San Telmo jaien barruan egiten duten Bertsio Gaua. 2008an sortu zuten ekitaldi hori, baina hura antolatzeaz arduratzen den Zumaiako Txosna Batzordeko arduradunek adierazi dutenez, ez zen inon zehazki erabakitako zerbait izan. "Garai hartan saltsa egoten zen festetan herriko zein taldek joko zuten erabakitzerakoan, denek nahi izaten baitzuten kontzertua ematea. Paukoiat taldeko batzuk Segiko kideak ziren, eta haiek arduratzen ziren txosnetako kontzertuez; haiei okurritu zitzaizen Bertsio Gaua antolatzea. Bazekiten beste herri batzuetan egiten zela, eta batez ere Durangokoak [Bizkaia] inspiratuta jarri zuten mar txan Zumaiako jaialdia. Han oso ondo funtzionatzen zuen: ekintza herrikoia zen, eta jendeak parte hartzen zuen. Hala, Zumaiaren ere funtziona zezakeela pentsatu zuten. Gainera, Bertsio Gauak aukera ematen zuen kontzertua eskaini nahi zuten talde horiek guztiek jozteko".

Lehen edizioa 2008. urtean antolatu zuten, helburu garbi batekin: herriko jendeak parte hartuko zuen gau bat antolatzea nahi zuten, eta jendeak ondo pasatzea. Lauzpabost talderen bertsioak entzun ahal izan ziren lehendabiziko Bertsio Gau hartan: Ahuntzaren Gauerdiko Eztula, S.A. edota Latzen taldeenak, besteak beste. "Parodia kutsua ere bazeukan jaialdiak hasieran, eta partaide asko bertsioa egiten ari ziren taldeko kideez mozorrotuta igo ziren oholtzara", gogoratu du Txosna Batzordeak.

Hasiera-hasieratik, beraz, harrera "oso ona" izan zuen ekintzak; lehen aldi hartan talde asko animatu ziren parte hartzera, eta txosnetan jende asko bildu zen. Poliki-poliki eta urtez urte indarra hartzen joan zen Bertsio Gaua, eta 2010ean eztanda egin zuela esan daiteke: "Urte hartan karpak jarri zen txosna gunean, eta orduan jo zuen goia Bertsio Gauak. Publikoa gertuago edo beroago sentitzea ahalbidetzen du karpak, eta agian horregatik indartuko zen jaialdia urte horretatik aurrera", diote antolatzaileek.

Berotasun hori herritarrek gustuko dutela dirudi; izan ere, badira urtero-urtero Bertsio Gauean parte hartzen duten musikari batzuk, hutsik egi-

Herriko jendeak parte hartuko zuen gau bat antolatzea nahi zuten

"Oholtza edozeinentzat espazio eroso" bihurtzea nahi dute

ten ez duten horietakoak. "Eta horietako batzuek talde batean baino gehiagotan jotzen dute; horrek ematen dio egonkortasuna Bertsio Gauari. Horrez gain, urtero animatzen da jendea oholtzara lehen aldiz igoztera, eta horretarako bultzada izan nahi du, aldi berean, Bertsio Gauak", esan dute antolatzaileek.

Aurrera begira

Arrakasta horrek jende asko gerturatu du Bertsio Gaue-

Santa Klarako esne eta jogurt artisau eta osasuntsuak baserritik merkatura zuzenean
*Esne hautsik eta azukre gehigarririk gabe

Salmenta puntua:
San Telmo kalea 24, Zumaia

638 75 07 40 santaklarabaserria@gmail.com

GORA SANTELMO!!
Tel.: 943-86 06 21, Basadi auzategia 4

MUINA

Eusebio Gurrutxaga 8, Zumaia
www.muina.eus | muinataberna@gmail.com | 633 97 40 08

GORA SANTELMO

1999 URTEAZ GEROZTIK

Juan Belmonte 2 ZUMAIA

Bañeru 1 ZARAUTZ

@arrivati


Taberna

Pintxoak eta giro jatorra
GORA SANTELMOAK!
Bidasoa kalea z/g · 943-86 22 25



Herritarrak ez dira 'tripitizio' gosez geratuko: santelmoak hiru asteburutan ospatuko dituzte aurrerantzean

Etorkizunean horrelako berriak eman nahi dizkizugu, uneotan ezinezkoak diruditen arren. Horretarako, martxan jarraitu behar dugu. Posible izan dadin, beharrezkoa dugu zure babesa. Egin bazkide.



Etorkizuneko irudi bat. GUKA

-ERREDAKZIOA

Duela bi urteko Bertsio Gaueko une bat.

ra, baina horrek ez du eragin handiegirik izan antolaketa lanetan, jaialdiak "oso funtzio-namendu sinplea" duelako, antolatzaileen arabera: "Txosna Batzordeak izen ematea zabaltzen du, eta behin hori itxitakoan, izena eman duten taldeen artean zozketa egiten du, horiek zer hurrenkeratan joko duten zehazteko. Behin hori eginda, musikariek euren artean hitz egiten dute, musika tresnak nork jarriko dituen zehazteko. Egunean bertan material hori txosna gunera eramateko elkartzan dira musikariak, eta Bertsio Gaua amaitzean, dena jasotzeko. Aurretik, entseguak egiteko, talde bakoitza bere kabuz moldatzen da. Batzuek Dardarako entsegu lokala erabiltzen dute, beste batzuek gaztetxea...". Bertsio Gauak gaur egun duen osasun onari eusteko asmoa

dute Zumaiako Txosna Batzordeko kideek. Jakitun dira oholtza gaineko taldeek izango dutela erreleboa, eta hori mantentzea nahi dute, baina, horrez gain, beldurrak eta lotsak uxatu eta jaialdia ondo pasatzeko plaza bilakatzea ere badute erronka gisa: "Ez dugu musikan trebatutako jendearen partaidetza bakarrik bilatzen, baizik eta gustuko duen talde baten bertsioa eginez ondo pasatzeko gogo duen edonor animatzea nahiko genuke". Horrenbestez, partaide kopurua handitzeaz gain, parte hartu nahi lukeen oro lotsarik gabe oholtzara igotzea nahi dute, "haren musika jotzeko gaitasuna edozein dela ere". Herriko jendea animatzea eta denek elkarrekin "gau eder bat pasatzea" da helburua: "Horretan edozeinek egin dezake

ekarpena. Hortaz, horretara animatu nahi genuke gogo duen edozein pertsona. Bestalde, gizonek hartzen dute oholtza modu nabarmenean, eta Bertsio Gaua ez da salbuespena. Hori aldatu nahi genuke, eta oholtza eta oholtza azpiko lehen ilarak edozeinentzat espazio eroso bihurtu".

Hamaika talde

Aurtengo Bertsio Gaua repetizioetako ostiralean izango da, apirilaren 17an. Txosna eremuak jendetza hartuko du 22:00etatik aurrera aurtengo bertsioak eta doinuak entzuteko. Zumaiako Txosna Batzordeak aurreratu duenez, 11 talde igoko dira oholtza gainera: Salta, Kuraia, Koktel Molotov, M.J.en Aparra, Glaukoma, Popurri, Lamb of God, The Ostrukas, Extromoduro, Joxe Ripiau eta Red Hot Chili Peppers.



Azkue

Profesionalak gara



GORA SANTELMOAK!

943-86 26 51
www.ricardoazkue.com





Gora San Telmo!!!

Zumaiako merkatari eta
ostalariek jai zoriontsuak
opa dizkizue!!



NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Esti Curiel /
Aktorea eta sortzailea

Zumaia

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Guka independentea da eta komunitatean du oinarria. Herritik eta herriarentzat sortua izanik, aurrera egiteko, guztion babesa eta lankidetzaz ezinbestekoak dira.

GUKA

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa

